

ALDERDIA	ESKAS	NAHIKO	ONGI	BIKAIN	GUZTIRA
<b>Porta-folioaren egitura</b>					
<b>Aurkezpena</b>	Ez dago aurkezpenik: <b>0</b>	Aurkezpena azalekoa da: kokapena besterik ez da egiten: <b>1</b>	Aurkezpenean, porta-folioaren zergatia eta nondik norakoaren berri ematen du modu pertsonalean, beren-beregi: <b>1,5</b>	Aurkezpenean, porta-folioaren zergatia eta nondik norakoaren berri ematen du beren-beregi. Ikaskuntza berriaren abiapuntua eta helburuak finkatzen ditu. Norberaren ikaskuntza prozesuaren baitako transformazio premia baloratzen du: <b>2</b>	<b>2</b>
<b>Bilakaera (edukia, eskainitakoa zein norberarena)</b>	Ikasgaien finkatutako gutxieneko eduki guztia ez du (praktika kopurua, burututako artefaktuak, etab): <b>0</b>	Ikasgaien finkatutako gutxieneko edukia ba du. Akats batzuk ditu biltzen diren ebidentzien identifikazioan: <b>1,5</b>	Ikasgaien finkatutako gutxieneko edukia biltzen du. Besteen ekarpenen aipamenak egiten dira. Akats batzuk daude helburu eta edukien artean: <b>2</b>	Ikasgaien finkatutako eduki guztia biltzen du eta beste batzuk eranstean ditu bere kasara, osagarri direnak. Ekarpeneak egiten dira eta hauen aipamena zaintzen da. Ez dago akatsik eduki eta helburuen artean. Sakontzeko artefaktu osagarriak gaineratzen ditu: <b>3</b>	<b>3</b>
<b>Ondorioa</b>	Ez dago ondoriorik: <b>0</b>	Ondorioa azalekoa da, argumentazio gutxiarekin hornitua: <b>1</b>	Ondorioak bere baitan biltzen du aprendizaiaren abiapuntua, prozesua eta emaitzen gaineko analisisa. Artefaktu propioak biltzen ditu haien arteko erlazioa azaltzen du: <b>1,5</b>	Ondorioak, bereganatutako ikaskuntzaren prozesuaren ikuspegi osoa eta benetakoa azaltzen du. Elementu osagarriak txertatzen ditu eta haien arteko erlazioa azaltzen du. Ikaskuntza helburu eta premia berriak deskribatzen ditu. Hastapenetatik honainoko aldaketa baloratzeko gauza da: <b>2</b>	<b>2</b>
<b>Hausnarketaren kalitatea</b>					
<b>Hausnarketa</b>	Ez dago hausnarketarik, aipamenak soilik: <b>0</b>	Ikaskuntza prozesuaren baitako emozioen deskribaketa hutsala, jarduerarena edo ondorioena: <b>1,5</b>	Hausnarketak, jarduera bera zein emozioak deskribatzen ditu; gauzatutako ikaskuntzaren gaineko azterketa egiten du. Antzeko egoeren arteko alderaketa egiten du: <b>2</b>	Hausnarketak, jarduera bera zein emozioak deskribatzen ditu; gauzatutako ikaskuntzaren gaineko azterketa egiten du, aurrekoekin lotzen du eta berriak planteatzen ditu. Hausnarketek, aldaketa premia adierazten dute edo ikaskideen artean gauzatutako aldakuntza bera: <b>3</b>	<b>3</b>
<b>Zehar-lerroak (-1)</b>					
<b>Hizkuntzaren erabilera eta estiloa</b>	Ez da ideiak argi transmititzea lortzen. "kopiatu/itsatsi" teknika erabiltzen da. Ez dira iturriak aipatzen ez oharririk egiten (APA).				
<i>Puntuazioa guztira</i>	<b>0</b>	<b>5</b>	<b>7</b>	<b>10</b>	<b>10</b>